



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilak 9

Vitoria-Gasteiz, 9 de enero de 2018

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK IRENE LARRAZA IZENDATU DU ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUKO ZUZENDARI

- **Kulturaren Sustapenerako eta Hedapenerako Etxepareko zuzendaria izan da orain arte, eta Miren Arzalluzen lekukoa hartuko du orain; azken honek Parisko Palais Galliera zuzentzeko erronkari helduko dio**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Irene Larrazaren izendapena onartu du bere gaurko saioan Etxepare Euskal Institutua zuzentzeko. Kazetari tolosarra Kulturaren Sustapenerako eta Hedapenerako Etxepareko zuzendaria izan da orain arte, eta Miren Arzalluzen lekukoa hartuko du orain. Azken honek erakunde hau utzi du Parisko Palais Galliera moda museoa zuzentzeko.

Komunikazio Zientzietan lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean, eta kulturaren eremuan ibilbide luzea egina, Larrazak (Tolosa, 1970) erantzukizuneko lanpostuak bete izan ditu komunikazioaren eta kultur kudeaketaren eremuetan. Hasiera batean, Herri Irratian esatari eta erredaktore lanetan aritu zen hiru urtez. Ondoren, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Sustapenaren eta Hedapenaren arduradun izan zen hiru urtez, eta zortzi urtez izan zen Syntorama musikarien ordezkari-entzako Sustapenaren, Komunikazioaren eta Editorialaren arduradun. 2008 eta 2012 urte bitartean Tolosako Udalean garatu zuen bere ibilbide profesionala Kulturako Koordinatzaile eta Zuzendari gisa. 2012az geroztik, Etxepare Euskal Institutuaren taldeko kide da Larraza. Bertan, Komunikazio Arduraduna izan zen aurrena, eta 2016ko azaroaz geroztik Kulturaren Sustapen eta Hedapen Zuzendaria hurrena.

Izendapen honekin, Kulturako eta Hizkuntza Politikako Sailak jarraipena eman nahi dio duela urtebete Miren Arzalluzekin hasitako etapari, erakundea, herrialdearen kultur ehuna eta bere premiak sakonetik ezagutzen dituen pertsona honen bitartez, bere aurretik kargua bete zuenak abian jarritako proiektua ondo asko ezagutzen duela kontuan hartuta gainera.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO NOMBRA A IRENE LARRAZA DIRECTORA DEL INSTITUTO VASCO ETXEPARE

- **Hasta ahora había ocupado el cargo de Directora para la Promoción y Difusión de la Cultura en esta institución y pasa a sustituir a Miren Arzalluz, que dirigirá el Palais Galliera de París**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy el nombramiento de Irene Larraza como nueva Directora del Instituto Vasco Etxepare. La periodista tolosarra, hasta ahora Directora para la Promoción y Difusión de la Cultura en esta institución, sustituirá de esta manera a Miren Arzalluz, que abandona la dirección de Etxepare para afrontar el reto de dirigir el Palais Galliera, el museo de la moda de París.

Licenciada en Ciencias de la Comunicación en la Universidad de Navarra y con una amplia trayectoria en el ámbito cultural, Larraza (Tolosa, 1970), ha ocupado distintos puestos de responsabilidad en áreas de comunicación y gestión cultural. Inició su carrera profesional como locutora y redactora en Herri Irratia, donde permaneció tres años. Posteriormente fue responsable de Promoción y Difusión del centro cultural Koldo Mitxelena Kulturunea de San Sebastián durante tres años y durante ocho años ocupó el puesto de responsable de Promoción, Comunicación y Editorial de la agencia de representación de músicos Syntorama. Entre 2008 y 2012 desarrolló su actividad profesional en el Ayuntamiento de Tolosa como Coordinadora y Directora de Cultura. Desde el año 2012 Larraza forma parte del equipo del Instituto Vasco Etxepare donde ha desempeñado sus funciones como Responsable de Comunicación primero y como Directora de Promoción y Difusión de la Cultura desde noviembre de 2016.

Con este nombramiento el Departamento de Cultura y Política Lingüística quiere dar continuidad a la etapa iniciada hace un año con Miren Arzalluz a través de una persona con un amplio conocimiento de la institución, del tejido cultural del país y sus necesidades, y que conoce a la perfección el proyecto puesto en marcha por su predecesora en el cargo.